**Azalpen txostena, Kultura, Turismo Gazteria eta Kirol Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusien ingurukoa eta haiek prestatzean erabilitako irizpideak jasotzen dituena.**

Kultura Zuzendaritzako ezberdintasun nabarmenenak ondorengoak dira:

- 2019. urtean bukatuko da KM berritzeko proiektuaren idazketa eta zaharberritzeko obrei emango zaie hasiera. Bigarren jarduketak ere eragin ekonomiko garrantzitsua izango du hurrengo bi ekitaldietan. Gainera, kontuan izan behar dira, besteak beste, funtsen lekualdaketak, zerbitzuak eskaintzen jarraitu ahal izateko egokitu behar diren espazioak eta Kultura Zuzendaritza behin behinean kokatzeko lokalaren alokairuak ekarriko dituzten gastuak ere hor egongo direla 2019. urtean.

- Oñatiko Artxibo Historiko Probintzialaren transferentzia 2018an jaso dugu eta horren ondorioz, han gordetzen diren dokumentu funtsen mantentzea eta kudeatzea gure gain dago. Aurrekontuan egon den igoera hori ekonomikoki ere konpentsatu da Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioaren bidez.

Gazteria eta Kirol zuzendaritzan hauek dira aldaketa azpimagarrienak:

- Anoetara zuzendutako milioi bat euro eta eskola-kirol berrikuste prozesuaren ondorioz egiten dugun ahalegina. Eskola kiroleko programak 286.000,00 euroko igoera izan du. Zenbateko hori prestakuntzan, ikerketan, eskola kiroleko inklusio planean eta 6-8 urte bitartekoak ezatzeko erabiliko da. Kontu sail desberdinetan dago banatuta gastu motaren eta esku-hartzen duen eragilearen arabera (federazioa, toki entitatea eta abar.)

Turismo Zuzendaritzako ezberdintasun nabarmenenak ondorengoak dira:

- Pasaiako Udalaren kontusaila, Pasaia 2020 Itsas Jaialdia antolatzeko: 100.000 euro eta 240.000 euro 2020 konpromiso kredituràko

- Hitzarmena ADEGI Gipuzkoako Enpresen Elkartearekin, lurraldearen baliabide

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

Las diferencias más destacables de la dirección de Cultura son las siguientes:

- Durante el año 2019 se finalizará la redacción del proyecto para la reforma del KM y darán inicio las obras de rehabilitación. La segunda actuación tendrá también un impacto económico importante durante los dos siguientes ejercicios. Además, el traslado de fondos, la necesidad de adaptar espacios que sigan ofreciendo servicios y el alquiler de un local para ubicar provisionalmente la dirección de Cultura son también gastos a tener en cuenta en 2019.

- En 2018 hemos recibido la transferencia del Archivo Histórico Provincial de Oñati, lo que nos hace responsable del mantenimiento y gestión de los fondos documentales allí conservados y del edificio que los alberga. Este incremento en el presupuesto se ha visto compensado también económicamente en el mismo acuerdo firmado con el Gobierno Vasco.

En la dirección de Juventud y Deporte las diferencias más destacables son las siguientes:

- El millón de euros destinado a Anoeta y el esfuerzo que hacemos a consecuencia del proceso de revisión de deporte escolar. El programa de deporte escolar experimenta un crecimiento de 286.000 € dirigido a formación, investigación, plan de inclusión de deporte escolar y la implantación del 6-8. Está repartido en distintas partidas en función del tipo de gasto y de el agente a que interviene (federacion, ente local etc)

Las diferencias más destacables de la dirección de Turismo son las siguientes:

- La partida de Ayuntamiento de Pasaia para la organización del Festival Marítimo de Pasaia 2020: 100.000 euros y 240.000 crédito de compromiso 2020

- Convenio con la Asociación de Empresas de Gipuzkoa-ADEGI para la promoción de

turistikoak sustatzeko negozio eta pizgarri turismoan. Helburua da Gipuzkoako enpresa munduaren eta turismo sektorearen arteko lankidetza sendotzea: 40.000 euro.

- Gipuzkoako turismo jardueraren eta merkataritza sektorearen arteko loturak sendotzeko apostua, eta Gipuzkoako Merkatarien Federazioarekin lankide hitzarmen batekin gauzatuko dena: 30.000 euro.

- Lankidetza Gipuzkoako Apartamentu turistikoen elkartearekin, Gipuzkoako apartamento turistikoak antolatzeko eta profesionalizatzeko, nazioarteko mailan dagoen eskaerari erantzuna emateko: 20.000 euro.

- Hitzarmena Basque Culinary Center-ekin Turismo Gastronomikoko Mundu Foroa antolatzeko: 50.000 euro

- Inbertsio atalean 250.000 euroko kontusail bat Donostiako Udalarentzat, Donostia-Gipuzkoa bulego berriko obrak hasteko.

Garapenerako lankidetzako Zuzendaritzaren aurrekontuetan bi gai hauek dira azpimagarrienak:

- Gipuzkoako gizartea Lankidetza esparruan parte hartzea bultzatzen duen Gipuzkoa Coopera programan parte hartuko duten proiektuak laguntzeko igoera,

- Ekintza zehatz batzuen igoera, 2016ko otsailaren 23ko diputatuen kontseiluak onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiak garapenerako lankidetzan jarduteko esparru estrategikoan jasotzen diren irizpideak jarraituz. Ekintza horiek Garapen Iraunkorreko Helburuetan (GIH) NBEk eta Agenda 2030ean onartutakoetan zehazten dira.

los recursos turísticos del territorio en el turismo de negocios e incentivos. El objetivo es estrechar la colaboración del mundo empresarial guipuzcoano con el sector turístico: 40.000 euros

- Apuesta para ampliar y estrechar los lazos del sector comercial y la actividad turística de Gipuzkoa para la puesta en valor del turismo de compra, que se materializará con un convenio de colaboración con la Federación Mercantil de Gipuzkoa: 30.000 euros

- Colaboración con la Asociación de Apartamentos turísticos de Gipuzkoa para la ordenación y profesionalización de los apartamentos turísticos en Gipuzkoa cubriendo así una demanda existente a nivel internacional: 20.000 euros

- Convenio con Basque Culinary Center para la organización del Foro Mundial de Turismo Gastronómico: 50.000 euros

- En el capítulo de inversiones una partida de 250.000 euros para el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian destinadas al comienzo de las obras de la nueva oficina conjunta San Sebastian-Gipuzkoa.

En el caso del Presupuesto de la Dirección General de Cooperación para el Desarrollo, resultan significativas las siguientes dos cuestiones:

- El incremento del crédito destinado a diferentes proyectos dentro del programa Gipuzkoa Coopera que impulsa la participación de la sociedad guipuzcoana en la cooperación.

- El incremento de las acciones más concretas en aplicación de las directrices recogidas en el Marco Estratégico de actuación de la cooperación para el desarrollo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral el 23 de febrero de 2016. Estas acciones se concretan en los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), aprobados por las Naciones Unidas y en la Agenda 2030.

## 02 Departamentua KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA/
## Departamento 02 DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO, JUVENTUD Y DEPORTES

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Zerbitzu Orok Servicios Generales de Cultura, Turismo, Juventud | 1.491,43 | 1.736,99 | | | | 1.514,00 | | | | 4.742,42 |
| 10. Ondare Historiko Artistikoa eta Artxiboak/ Patrimonio Histórico-Artístico y Archivos | 1.363,79 | 1.497,60 | | 746,50 | | 652,00 | 1.249,00 | | | 5.508,89 |
| 11. Gordailua eta Museoak/ Gordailua y Museos | 261,96 | 1.579,58 | | 1.487,50 | | 465,00 | | | | 3.794,04 |
| 12. Kultur proiektu estrategikoak/ Proyectos estratégicos culturales | 235,24 | 1.978,00 | | 1.930,00 | | 55,00 | | | | 4.198,24 |
| 13. Liburutegia, Kulturaren Sustapena eta Hedapena/ Biblioteca, Promoción y Difusión Cultural | 1.121,22 | 1.953,55 | | 5.211,00 | | 650,10 | 570,00 | | | 9.505,87 |
| 20. Haur, nerabe eta gazteen sustapena/ Promoción de infancia, adolescencia y juventud | 3.230,07 | 2.546,55 | | 741,25 | | 79,00 | 50,00 | | | 6.646,87 |
| 21. Kirolaren sustapena/ Fomento del deporte | 941,13 | 993,61 | | 9.750,77 | | 35,50 | 3.910,00 | | | 15.631,01 |
| 30. Turismo eta lurralde irudia/ Turismo e imagen territorial | 329,70 | 1.049,55 | | 1.538,93 | | 9,50 | 250,00 | | | 3.177,68 |
| 40. Garapenerako lankidetza/ Cooperación al desarrollo | 229,78 | 194,25 | | 4.318,00 | | | | | | 4.742,03 |
| **Departamentua Guztira Total Departamento** | **9.204,32** | **13.529,68** | | **25.723,95** | | **3.460,10** | **6.029,00** | | | **57.947,05** |

